



## FAMILIENTZAKO INFORMAZIOA

### PEDIATRIAKO EGUNEKO OSPITALEKO ENDOKRINO-PROBAK: KLONIDINA TESTA

---

#### Zertan datza proba?

Proba hau hazkunde-hormonaren urritasuna diagnostikatzeko erabiltzen da.

Unitatean sartzean, 114. gelan egongo da, haurra pisatu egingo da, konstanteak hartuko zaizkio eta zain-bide bat bideratuko zaio. Protokoloari jarraituz, medikazio bat emango zaio ahotik, eta, ondoren, hainbat analisi aterako dira zain-bide horretatik.

#### Nola prestatu behar da proba egiteko?

Aurreko gauerditik baraurik egon behar da. Bezperan ondo afaltzea gomendatzen da.

Ospitalera joan baino ordubete lehenago, EMLA krema eman behar zaio haurrari besoen bi tolesturetan (segitu EMLA kremaren jarraibideak).

#### Kontuan hartzekoa:

Proba honek hipotentsioa eta loa eragin ditzake. Ezinbestekoa da haurrak proban lo ez hartzea. Halaber, komeni da haurrak proba egindakoan elikagai gaziak hartzea. Etxetik olibak, patata frijituak... ekartzea gomendatzen da.